## PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

| | |
|---|---|
| **Departamentua:** | 02 - JASANGARRITASUN DEPARTAMENTUA |
| **Atala:** | 0210 - Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritza Nagusia |
| **Programa:** | 100 - Jasangarritasuna |
| **Funtzionala:** | 172 - Ingurumenaren babesa eta hobekuntza |

**Programa mota:**

Finalista

**Misioa:**

Eragileekin eta herritarrekin elkartzeko eta lankidetzan aritzeko esparru orokor bat sustatzea, eta eragile horiei laguntzea, Gipuzkoako lurralde- eta toki-iraunkortasuna lortzeko, bai eta ingurumen-arloko GJHen helburuen lorpenaren jarraipena egiteko ere.

**Egoeraren diagnostikoa:**

Gipuzkoak Europako lurralde gehienetan berezkoak diren arazo ekologikoak ditu (materialen, lurzoruaren, uraren eta energiaren kontsumo handia, hondakinen eta emisioen sorrera-maila handiak), eta kasu batzuetan larriagotu egiten dira lurraldearen ezaugarriengatik: biztanleria-dentsitate handia, industria-garapen handia eta topografia malkartsua. Arazo horien ondorioz, batetik, industria-, bizitegi- eta azpiegitura-erabilerek haran-hondoetan eragindako inpaktuak kontzentratu egiten dira, eta, bestetik, gainerako lurraldearen hauskortasuna, lurzorua mugitzea edo landare-estalkia eraldatzea dakarten jardueren aurrean.
Gipuzkoarrek garapen jasangarrirako eredu baterantz egiten duten trantsizio ekologikoak gizarte osoaren jarduera aktiboa eskatzen du, gizarte hori ordezkatzen duten administrazioek erabakitasunez eta eraginkortasunez bultzatua. Trantsizio ekologikoko prozesu horretan esku hartzen duten eskumenak lurraldean jarduten duten erakundeen artean banatuta daude, eta beharrezkoa da erakunde horien arteko etengabeko topaketa bultzatzea, koordinazio- eta lankidetza-zailtasunak gainditzeko eta jarduteko sinergiarik handienak lortzeko.

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Gipuzkoako Foru Aldundiak parte hartu behar du Gipuzkoari eragiten dioten arazo ekologikoak konpontzen, eta, horretarako, beharrezkoa da lurraldean eskumenak dituzten gainerako eragileekin koordinatzea eta esperientziak eta ezagutzak trukatzea, bai eta dauden arazoak eta lortutako aurrerapenak gizarteari jakinaraztea ere. Nazioarteko beste eragile batzuekin esperientziak eta ezagutzak trukatzea ere sustatu beharko da, Europako proiektuetan parte hartuz.
Lurralde- eta toki-jasangarritasunaren arloan erakunde-kultura oso bat 25 urtez bultzatu ondoren, eta 2030 Agendaren Garapen Jasangarriko Helburuak betetzera bideratutako jasangarritasunaren plangintza- eta kudeaketa-tresnak birbideratzeko eta birformulatzeko aldi baten ondoren, Zuzendaritzak lurraldearen jasangarritasuna behatzeko eginkizunari eusten dio, bereziki garatzen dituen trantsizio ekologikoko politikek ingurumen-helburuei egiten dieten ekarpenari dagokionez.

**Nori zuzendua:**

Tokian-tokiko eskalan: udalak eta beste toki-erakunde batzuk, ehun sozioekonomikoa osatzen duten beste eragile asko, eta biztanleria, oro har. Lurralde-eskalan, foru-aldundia bera, lurralde-mailan GJHak betetzeko interesa izan dezaketen beste eragile batzuen artean.

**Programaren estrategia.**

**1. Baliabideak (inputak):**

Bitarteko ekonomiko eta giza baliabide propioak Kanpoko laguntza teknikoa kontratatzea.

**2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:**

Dibulgazio jarduerak, bilerak, aurkezpenak, akordioak, Gipuzkoako erakunde eta eragileekiko koordinazioa, prestakuntzaren kudeaketa, benchmarking, kontsultak jaso eta kudeatzea, komunikabideen arreta. Jasangarritasunari buruzko azterlanak eta analisiak.

**3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):**

Zuzendaritzako langileen prestakuntza eta dokumentazioa, instalazioak eta oinarrizko zerbitzuak. Eragileekin hitzarmenak edo beste lankidetza-bide batzuk, proiektu partekatuetan Europa finantzatzeko

aukerak. Zuzendaritzaren webgunea, informazio orokorra eta kontsultei emandako erantzunak. Zuzendaritzaren laguntza orokorreko laguntza teknikoak. Jasangarritasunaren jarraipena egiteko azterlanak eta tresnak.

**Programaren arau esparrua:**

Lurralde historikoen legea. Toki-erregimenaren Oinarrien Legea. Administrazio-legeri orokorra. Kontratazio araudia. 10/2021 Legea, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena. Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2015eko irailaren 25ean onartutako ebazpena: gure mundua eraldatzea: garapen jasangarrirako 2030 Agenda.

## DEPARTAMENTUAREN JARDUKETA OPERATIBOA

**Urteko helburua:** Gipuzkoako lurralde eta toki jasangarritasunerako plan eta proiektuetan eragileak lerrokatzea bultzatzea.

| Adierazlea | Neurri-unitatea | Helburu mota | Azken balioa | Aurtengo aurreikuspena | Urteko helburua | Agintaldiko helburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Europako proiektu kopurua | Kopurua | >= | 5,00 | 1,00 | 2,00 | 3,00 |
| Garapen Jasangarriko Helburuen Adierazleak (Agenda 2030), bilakaera positiboarekin | Ehunekoa | >= | 0,00 | 54,00 | 55,00 | 60,00 |
| Zuzendaritzako webguneak izandako bisita kopurua | Kopurua | >= | 2.363.710,00 | 2.500.000,00 | 3.000.000,00 | 3.500.000,00 |

### Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

**1. Ekintza lerroa:**
Europako proiektuak bultzatzea eta garatzea

12 EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK % 50,00 — 17 HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA % 50,00

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ekintza lerroa, guztira** | **145.257,60** | **95.549,00** | | **2025/01/01** | **2026/12/31** | |
| **1.1 Ekintza** Europako proiektuen kandidaturak bultzatzea | 145.257,60 | 95.549,00 | | 2025/01/01 | 2026/12/31 | |

**2. Ekintza lerroa:**
Oinarrizko ekipamenduak eta zerbitzuak

16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK % 100,00

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ekintza lerroa, guztira** | **38.762,30** | | | **2025/01/01** | **2025/12/31** | |

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **2.1 Ekintza**<br>Oinarrizko ekipamenduak eta zerbitzuak | 38.762,30 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |

**3. Ekintza lerroa:**

Gipuzkoako Jasangarritasunaren Behatokia: 2030 Agendaren ingurumen helburu eta jomugetan egindako aurrerapenaren jarraipena.



% 100,00

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ekintza lerroa, guztira** | **119.417,20** | | | **2025/01/01** | **2025/12/31** | |
| **3.1 Ekintza**<br>2030 Agendaren ingurumen-helburuetan eta -jomugetan izandako aurrerapen-mailaren kalkulua | 119.417,20 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |

**4. Ekintza lerroa:**

Bilerak eta topaketak lurraldean eskumenak dituzten eragileekin



% 30,00



% 70,00

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ekintza lerroa, guztira** | **206.675,80** | | | **2025/01/01** | **2025/12/31** | |
| **4.1 Ekintza**<br>Bilerak eta topaketak lurraldean eskumenak dituzten eragileekin | 206.675,80 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |

**5. Ekintza lerroa:**

Ingurumen-informazio eta -zabalkunde orokorra



% 72,94



% 15,29



% 11,77

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ekintza lerroa, guztira** | **229.530,10** | | | **2025/01/01** | **2025/12/31** | |
| **5.1 Ekintza**<br>Web atariaren mantenimendua | 54.008,60 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **5.2 Ekintza**<br>Jardunaldi eta ikastaroak antolatzea | 175.521,50 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |

## GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Ertaina

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Populazio osoa

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Hezkuntza eta ezagutzarako aukera izatea

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Beharrezkoa da ordezkaritza eta/edo erabaki sozial eta politikoko lanpostu publikoetan emakumeen presentzia aktiboki sustatzen jarraitzea; izan ere, arlo horretan nabarmen aurreratu bada ere, oraindik bidea egiteko dago. Programa honi lotutako ekintzen kasuan, garrantzitsua da ekitaldi publiko guztietan emakumeen presentzia orekatua bermatzen jarraitzea (aniztasuna kontuan hartuta), baita ingurumen politiken koordinaziorako mahai eta egituretan ere.

| | | |
|---|---|---|
| **Kuantifikazioa:** | 6.200,27 | ( % 0,74 ) |
| **Ordainketa kredituak:** | 6.200,27 | ( % 0,84 ) |
| **Datozen urteetako gastuak:** | 0,00 | ( % 0,00 ) |

| Kategoria | Nola | Nola % | Esleitutako adierazlea |
|---|---|---|---|
| **Ea.HO.9.3. Emakumeen presentzia handitzea gizarte eta politika arloko ordezkaritza eta/edo postu publikoetan.** | **Ea.9.3.1. GFAren aitortza publikoko sari, lehiaketa eta beste ekitaldi guztietan emakumeen presentzia handitzea, kontuan izanik lurraldeko emakumeen aniztasuna.** | **( % 20,00 )** | |
| | **Ea.9.3.2. Ordezkaritza eta erabakitze postuetan emakumeen arteko sinergiak sustatuko dituzten ekimenak bultzatzea, kontuan izanik lurraldeko emakumeen aniztasuna.** | **( % 20,00 )** | |
| | **Ea.9.3.3. Zuzendaritza-postuetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua duten edo modu aktiboan sustatzen ari diren erakundeak ikusarazteko laguntza ematea.** | **( % 20,00 )** | |
| | **Emakumeen presentzia orekatua bilatuko da (aniztasuna kontuan hartuta) ekitaldi publikoetan, bai eta ingurumen-politika koordinatzeko mahai eta egituretan ere** | **( % 20,00 )** | |
| | **Ekitaldi publiko guztietan emakumeen presentzia orekatua bermatzeko lan egingo da (aniztasuna kontuan hartuta), baita ingurumen politiken koordinaziorako mahai eta egituretan ere** | **( % 20,00 )** | |

## HIZKUNTZA BERDINTASUNEKO PLANA

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Programa honen edukian herritarrekiko komuikazioak garrantzi handia du. Besteak beste, Zuzendaritzaren webgunea, lurralde jasangarritasunaren diagnostikorako eta jarraipenerako dokumentuen argitalpena eta ekitaldi publikoak aurreikusten dira. Beraz, arreta berezia jarri behar da herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko, bai eta hizkuntzen erabilera orekatua bermatzeko ere.

| Kategoria | Nola |
|---|---|
| **8.- Herritarrekiko harremanak** | **Aurreko Ingurumen Zuzendaritzaren webgunea bitan banatu behar da (Trantsizio Ekologikoan eta Ingurumen Administrazioan). Euskarazko testuen berrikuspen kritikoa egingo da Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritzaren gai-arlo bakoitzean, batez ere terminologia teknikoari dagokionez.** |

## GJH

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Adierazi den bezala, programa honen helburua da Gipuzkoako trantsizio ekologikoan zerikusia duten eragileekin elkartzeko eta lankidetzan aritzeko esparru orokor eta egonkor bat ezartzea, bai eta jasangarritasunerako ekintzaren (lurraldekoa eta tokikoa) plangintza sustatzea ere, GJHak (2030 Agenda) lortze aldera. Programa horrek 11. GJHetan (HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK) eta 17. GJHan (HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA) laguntzen du batez ere.

**Kuantifikazioa:** 835.192,00 ( % 100,00 )

## Programari lotutako GJH zerrenda

| GJH, Helburu eta Ekintza lerroak | | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak |
|---|---|---|---|
| 12 EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK | 12-Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak<br><br>Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatzea. | **240.050,30** | **47.774,50** |
| **Helburua** | 12.8 - 2030. urterako, Gipuzkoako pertsona guztiek garapen jasangarrirako eta naturarekin bat datozen bizimoduetarako informazio eta ezagutza egokiak dituztela bermatzea. | 167.421,50 | |
| | **Ekintza lerroak** | | |
| | Ingurumen-informazio eta -zabalkunde orokorra | 167.421,50 | |
| **Helburua** | 12.2 - 2030. urterako, baliabide naturalen kudeaketa jasangarria eta erabilera eraginkorra egin dadila lortzea | 72.628,80 | 47.774,50 |
| | **Ekintza lerroak** | | |
| | Europako proiektuak bultzatzea eta garatzea | 72.628,80 | 47.774,50 |
| 13 KLIMAREN ALDEKO EKINTZA | 13-Klimaren aldeko ekintzak<br><br>Neurri urgenteak hartzea klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko (Aintzat hartuta Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmena klima aldaketari mundu mailan erantzuteko gobernuen arteko eta nazioarteko foroa nagusia dela). | **35.104,30** | |
| **Helburua** | 13.3 - Hezkuntza, sentsibilizazioa eta giza eta erakunde-gaitasuna hobetzea klima aldaketa arintzeko, hartara egokitzeko, ondorioak murrizteko eta alerta goiztiarra izateko. | 35.104,30 | |
| | **Ekintza lerroak** | | |
| | Ingurumen-informazio eta -zabalkunde orokorra | 35.104,30 | |
| 16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK | 16-Bakea, justizia eta instituzio sendoak<br><br>Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan. | **127.769,34** | |
| **Helburua** | 16.06 - Kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrak eta gardenak sortzea maila guztietan | 47.671,88 | |
| | **Ekintza lerroak** | | |

| GJH, Helburu eta Ekintza lerroak | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak |
|---|---|---|
| Bilerak eta topaketak lurraldean eskumenak dituzten eragileekin | 20.667,58 | |
| Ingurumen-informazio eta -zabalkunde orokorra | 27.004,30 | |
| **Helburua** 16.07 - Beharrei erantzungo dieten erabaki inklusiboak, parte-hartzaileak eta esanguratsuak hartuko direla bermatzea maila guztietan | 80.097,46 | |
| **Ekintza lerroak** | | |
| Bilerak eta topaketak lurraldean eskumenak dituzten eragileekin | 41.335,16 | |
| Oinarrizko ekipamenduak eta zerbitzuak | 38.762,30 | |
| 17-Helburuak lortzeko aliantza<br><br>Ezarpen-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea. | **336.719,06** | **47.774,50** |
| **Helburua** 17.16 - Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna hobetzea, eta horren osagarri izango diren hainbat interesdunen arteko aliantzak ezartzea, ezagutzak, espezializazioa, teknologia eta finantza-baliabideak mobilizatzeko eta trukatzeko, herrialde guztietan, bereziki garapen-bideetan daudenetan, Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzeko babesa emate aldera | 119.417,20 | |
| **Ekintza lerroak** | | |
| Gipuzkoako Jasangarritasunaren Behatokia: 2030 Agendaren ingurumen helburu eta jomugetan egindako aurrerapenaren jarraipena. | 119.417,20 | |
| **Helburua** 17.17 - Arlo publikoan, publiko-pribatuan eta gizarte zibilean aliantza eraginkorrak sor daitezen sustatzea, aliantzen baliabideak lortzeko estrategiak eta esperientzia baliatuz. | 217.301,86 | 47.774,50 |
| **Ekintza lerroak** | | |
| Bilerak eta topaketak lurraldean eskumenak dituzten eragileekin | 144.673,06 | |
| Europako proiektuak bultzatzea eta garatzea | 72.628,80 | 47.774,50 |
| **Guztira** | **739.643,00** | **95.549,00** |

## PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

| Gastuen kapituluak / Capítulos gastos | 2024 | 2025 | Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 2026 | 2027 | 2028 | 2029 eta hurrengoak/ 2029 y siguientes | Guztira / Total |
| 1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL | 477.101,00 | 497.086,00 | | | | | |
| 2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS | 388.879,82 | 235.049,00 | 95.549,00 | | | | 95.549,00 |
| 3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS | | | | | | | |
| 4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES | | | | | | | |
| 5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS | | | | | | | |
| **Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes** | **865.980,82** | **732.135,00** | **95.549,00** | | | | **95.549,00** |
| 6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES | 7.507,24 | 7.508,00 | | | | | |
| 7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | | | | | | | |
| **Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital** | **7.507,24** | **7.508,00** | | | | | |
| 8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS | | | | | | | |
| 9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS | | | | | | | |
| **Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras** | | | | | | | |
| **Guztira / Total** | **873.488,06** | **739.643,00** | **95.549,00** | | | | **95.549,00** |

| Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capitulos | Ordainketa kredituak / Créditos de pago | | Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros | | Guztira / Total | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Estrategikoa / Estratégico | Operatiboa / Operativo | Estrategikoa / Estratégico | Operatiboa / Operativo | Estrategikoa / Estratégico | Operatiboa / Operativo |
| 1. LANGILERIA GASTUAK<br>GASTOS DE PERSONAL | | 497.086,00 | | | | 497.086,00 |
| 2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK<br>GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS | | 235.049,00 | | 95.549,00 | | 330.598,00 |
| 3. FINANTZA GASTUAK<br>GASTOS FINANCIEROS | | | | | | |
| 4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK<br>TRANSFERENCIAS CORRIENTES | | | | | | |
| 5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA<br>FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS | | | | | | |
| **Eragiketa arruntak, guztira<br>Total operaciones corrientes** | | **732.135,00** | | **95.549,00** | | **827.684,00** |
| 6. INBERTSIO ERREALAK<br>INVERSIONES REALES | | 7.508,00 | | | | 7.508,00 |
| 7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK<br>TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | | | | | | |
| **Kapitaleko eragiketak, guztira<br>Total operaciones de capital** | | **7.508,00** | | | | **7.508,00** |
| 8. AKTIBO FINANTZARIOAK<br>ACTIVOS FINANCIEROS | | | | | | |
| 9. PASIBO FINANTZARIOAK<br>PASIVOS FINANCIEROS | | | | | | |
| **Finantza eragiketak, guztira<br>Total operaciones financieras** | | | | | | |
| **Guztira / Total** | | **739.643,00** | | **95.549,00** | | **835.192,00** |